

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure produktuak onura gehio eduki ditzan ezinbestekoa izango da merkatuaren segmentazioa egitea. Baina egia esan gure zerbitzua ez dago merkatuaren segmentu finko batera zuzendua, izan ere, gure produktuak bilatzen duena Donostiako herritarrei garraioa erraztea da eta gure ustez guztiek daukate eskubide hori. Hala ere, egia da ere gure gizartean bi talde egongo direla ezingo dutena zerbitzu honetaz disfrutatu. Kasu honetan 16 urtetik beherako gazteak eta pertsona zaharrak izango dira. Gazteen kasuan ez daukatelako adin nahikoa patinete elektriko batean erantzukizunarekin ibiltzeko eta zaharren kasuan beraien kondizioen arabera izango da. Gauza guzti hauek kontuan hartuta gure produktua 16 urtetik gorako jendearentzat izango da (pertsona zaharren kondizioen arabera). Turistak ere kontuan hartuko ditugu. Udan etortzen dira batez ere eta askotan garraiobide falta daukate. Gure zerbitzuarekin Donostiatik erraztasunarekin mugitzeko eta bitartean hiria bisitatzeko aukera izango dute. Horregatik aurrera eramango dugun estrategia hurrengoa izango da; Udan jende gehiago dagoenez (Donostian) ofertak eta eskaintzak egingo ditugu batez ere turistentzat.

